
Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ramon Arrese Letona

Eskoriatza, Gipuzkoa (1949)



Aurkibidea

Biografia



Maringo Bidegoitia (Bidebeitia Goikoa) baserrikoa, guraso biak marindarrak zituen. Maringo eskolan ibili zen eta 12 urterekin Arrasatera joan zen ikastera, gero eskola profesionalera joateko. Amak hika egiten zion, aitak zuka. Anai-arreben artean hika egiteko ohitura du; baita beste hainbat mutilekin ere. Semeei ez die hika egiten. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Maritxu arrebarekin batera, Maringo elkartean.

Zintak

ESK-102

- **Proiektua**: Eskoriatzan hika
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2024-03-14
- **Iraupena**: 86 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Emakumezkoei hika gutxiago

- **Erref**: ESK-102/009
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:10:47. **Bukatu**: 00:12:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Lau senidetan gazteena da Ramon eta bera izan zen Bidebeitiagoikoa baserrian jaio zen azkena. Anaia nagusiagoek beti hika egiten zioten eta berak ere umetatik egin izan du. Amak hika egiten zien, baina aitak zuka. Arrebei eta lehengusinei hika egin izan dien arren, lagunartean neskei gutxiago egiten ziela dio. Gaur egun ere oso emakumezko gutxiri egiten die hika. Gizonezkoekin, berriz, askoz gehiago egiten du.

2. Euskara batuaren eragina hikaren erabileran

- **Erref**: ESK-102/010
- **Iraupena**: 0:03:57. **Hasi**: 00:12:51. **Bukatu**: 00:16:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Ramonek ez du inoiz entzun hika ez dela emakumezkoentzako moduko hizkera eta ez du hala uste, gainera. Bere ustez euskara batuaren etorrerak du zeresana hikaren galeran. Lantegian euskaraz egin izan du beti gazteagoekin, baina haiek euskara batuan egiten zutenez, bera ere batura hurbiltzen saiatzen zen, eta, ondorioz, hika alde batera utzita zuka egin izan die gazteagoei. Ingurukoak izanez gero, berriz, mutilei hika, baina neskei zuka. Maritxuk, berriz, beste auzoetako emakumezkoekin hika egiten omen zuen lantegian.

3. Ramonek semeei zuka; Maritxuk alabei hika

- **Erref**: ESK-102/011
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:16:48. **Bukatu**: 00:17:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Semeei beti zuka egin izan die Ramonek, baina ez daki zergatik, etxean eredu hori jaso zuelako edo. Hala ere, Maritxuk alabei hika egiten die.

4. Bikotearekin zuka

- **Erref**: ESK-102/012
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:17:55. **Bukatu**: 00:19:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Euren bikoteekin zuka egiten dute. Inguruan ezagutzen dute elkarrekin hika egiten duen bikoteren bat, baina oso arraroa egiten zaie, hori ez zen izaten ohikoa eta.

5. Ume txikiei hikarik ez

- **Erref**: ESK-102/013
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:19:03. **Bukatu**: 00:20:38

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Maritxuk ume txikiei ez die hika egin izan; koskortutakoan bai. Alabei, adibidez, gerora hasi zen hika egiten. Ramonek umeei ez die inoiz hika egin izan eta uste du behin zuka hasiz gero, ohitura hori ez dela aldatzen gerora. Maritxuren alabek normaltasunez hartu izan dute amak hika egitea. Ohituta daude gurasoak euren senideekin hika entzuten. Hikak konfiantza ematen duela dio Ramonek.

6. Hika konfiantza handiagoa

- **Erref**: ESK-102/015
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:21:29. **Bukatu**: 00:22:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Hikak konfiantza handiagoa ematen duela dio Maritxuk; zuka errespetuzkoagoa iruditzen zaio. Ramonek, berriz, gertuko herri batera joanez gero hika egiten duela dio, baina urrunxeago joanez gero, lehenbizi zuka hasten dela. Gazteekin ere zuka, gazteek euskara batuan egiten dutelako.

7. Animaliei toka

- **Erref**: ESK-102/016
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:22:35. **Bukatu**: 00:23:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Animaliei hika egin izan diete; arra zein emea izan, toka hitz egiten diete.

8. Arrasaten gutxik egiten zioten euskaraz Ramoni

- **Erref**: ESK-102/019
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:25:11. **Bukatu**: 00:27:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Ramon 12 urterekin Arrasatera joan zen eskolara eta oso gutxik egiten zioten

euskaraz. Besteek ez zekiten edo ez zuten egiten. Horietako asko gerora euskaraz hasi ziren eta euskaraz egiten dute gaur egun. Orduan euskaraz egiten zutenekin hika egin izan du beti; besteekin, berriz, zuka.

9. Hizkuntza-ohiturak lantegian

- **Erref**: ESK-102/020
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:27:47. **Bukatu**: 00:30:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Maritxu Maringo eskolan ibili zen eta 19 urterekin Copreci lantegian hasi zen lanean. Bertan lan egiten zuten emakume asko baserrietakoak ziren eta hika egiten zuten elkarrekin. Ramonek, berriz, Fagorren lan egin izan du Arrasaten. Euskara zen nagusi lantegian. Gizonezkoei hika egiten zien eta emakumezkoei zuka. Gazteak sartzen hasi zirenean, haiei zuka egiten hasi zen. Zaharragoei hika egitea ez da ondo ikusita egon, hala ere, Ramonek ohitura kontua dela gehiago uste du.

10. Hizkuntza-ohiturak Marin auzoan

- **Erref**: ESK-102/021
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:30:10. **Bukatu**: 00:31:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Marin auzoan denek elkar ezagutzen dute. Maritxuk dio batzuei hika egiten diela eta beste batzuei ez, baina ez daki zergatik. Ramonek adin batetik gorako gizonezkoei hika egiten die, baina emakumezkoei ez.

11. Euskara batuaren eragina hitanoaren galeran

- **Erref**: ESK-102/023
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:33:06. **Bukatu**: 00:34:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Hitanoa gainbehera doa Euskal Herri osoan. Ramonen ustez euskara batuaren etorrerak eta horrek sortutako aldaketak izan dezake eragina, euskara batuak gauza oso onak ekarri dituen arren.

12. Arrasaten emakume gutxik egiten zuen euskaraz

- **Erref**: ESK-102/025
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:36:29. **Bukatu**: 00:38:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Ramonek dio, bera gaztea zenean, oso emakume gutxik egiten zutela euskaraz Arrasaten, jakin arren. Zorionez, gaur egun emakume horietako gehienek euskaraz egiten ei dute. Euskaraz egin ezean, hika are gutxiago. Emakumeen artean hikaren egoera okerragoa izatea hortik etor daitekeela iruditzen zaio.

13. Euskararen egoera Eskoriatzan

- **Erref**: ESK-102/027
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:39:27. **Bukatu**: 00:42:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gaur egun gazteek kalean gaztelaniarako joera dute, ta horrek nahi gabe gaztelaniaz jarraitzera eramaten gaituela. Gainera, euskaraz ez dakienen bat egonez gero, gaztelaniara jotzen dugu. Hala ere, garai batetik euskararen egoera asko hobetu dela iruditzen zaio, nahiz eta erabilera areagotzeko lan handia egin beharra dagoen oraindik ere.

14. Gizonezkoek hika aritzeko aukera gehiago I

- **Erref**: ESK-102/029
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:43:00. **Bukatu**: 00:43:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Garai batean gizonezkoak tabernan edo elkarteetan elkartzen ziren, baina emakumeak ez. Bai gizonezkoek eta bai emakumezkoek hika erabiltzen zuten lagunekin elkartzean, baina gizonezkoak gehiago elkartuko ziren ziurrenik.

15. Gizonezkoek hika aritzeko aukera gehiago II

- **Erref**: ESK-102/031
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:44:18. **Bukatu**: 00:45:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Gizonezkoek, tabernan elkartzen zirenean, hika egiten zuten elkarrekin eta, laguna izan ez arren, han ezagututakoari hurrengoan ere hika egiten zioten, konfiantza-puntua hartzen zutelako. Maritxuk dio norbaiti hika egin eta zuka erantzuten badu, konfiantza falta iruditzen zaiola.

16. Hikaren aurkako iruzkinak

- **Erref**: ESK-102/032
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:45:08. **Bukatu**: 00:47:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Hika zakarra dela entzun izan dute. Eta hika eginez gero, "hori baserrittarra izangon" bezalako iruzkinak ere bai. Pertsona batzuen aurreiritziak direla diote. Ramonek dio berak ez duela izan inoiz ikuspegi hori, berak konfiantza gehien duen pertsonekin egiten duelako hika.

17. Telebistan eta irratian hika gutxi

- **Erref**: ESK-102/036
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:53:33. **Bukatu**: 00:55:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Zaila izaten da hizkuntza-ohiturak aldatzea. Telebistan eta irratian ez da hikarik entzuten eta horrek ere badu eragina. Umeek hika entzuteko eta ikasteko, egokia litzateke marrazki bizidunetan hika sartzea.

18. Gero eta baserritar gutxiago; Maringo egoera

- **Erref**: ESK-102/039
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 01:01:26. **Bukatu**: 01:03:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Gero eta baserritar gutxiago dago. Etxeek iraungo dutela uste du Ramonek, baina baserritarrek ez. Marinen 1700 inguruan 37 baserri zeuden; gaur egun ez dago baserritik bizi denik. Baserritarren protestak. Egoera okerrera doa. Gazteak auzoetara bizitzera joateko oztopoak: zerbitzurik ez.

19. Marinen denek euskaraz

- **Erref**: ESK-102/041
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 01:03:59. **Bukatu**: 01:05:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Marinen euskaraz egiten dute, baita gazteek ere.

20. Baserriko emakumeek lan handia

- **Erref**: ESK-102/042
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 01:05:07. **Bukatu**: 01:06:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Garai batean emakumeek lan asko egin behar izaten zuten baserrian, soroko lanez gain etxeko lan guztiak ere euren gain izaten zituztelako. Gizonek ez zuten etxeko lanik egiten. Gaur egun egoera hobetu da emakume baserritarrentzat. Kalean, ostera, egoera ez ote den okertu dio Ramonek: oraindik ere emakumeek izaten dute umeen ardura eta, gainera, etxetik kanpora lan egiten dute.

21. Garai batetik aldaketa handia; teknologia eta berrikuntzak

- **Erref**: ESK-102/043
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 01:06:41. **Bukatu**: 01:09:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Garai batean errekara joaten ziren arropak garbitzera. Ur gutxi izaten zen etxeetan eta argia ere gutxi. "Txirristolia" erabiltzen zen argi egiteko. Gauzak asko aldatu dira, teknologiak onurak ekarri ditu. Badira okerrerako diren berrikuntzak ere, baina bakoitzak hartu behar neurria. Garai batean, baserri

batetik bestera abisua pasatzeko, ulu egin behar. Ordua kanpaiei esker jakiten zuten.

22. Gaztelaniaz ere egin arren, euskara nagusi gazteen artean

- **Erref**: ESK-102/046
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 01:10:53. **Bukatu**: 01:12:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Beraiek ere izan zuten gaztelaniarako joera, baina euskararen aldeko bultzadari esker euskaraz egiten jarraitu zuten. Gazteek gaur egun gaztelaniaz egiten dutela tarteka, baina euskara dela nagusi iruditzen zaie. Ramonek ez du uste gaztelaniarako joera gehitzen joango denik.

23. Telefonoa: ez izatetik gabe ezin bizi izatera

- **Erref**: ESK-102/048
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 01:12:32. **Bukatu**: 01:14:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Telefonoa aurrerapen handia izan zen. Maringo lehen telefonoa beraien etxean jarri zuten eta norbaitek deitutakoan etxe hartara abisua ematera joan behar. Mugikorrak hasi aurretik, bidaietara ere telefonorik eta bestelakorik gabe joan behar, baina orduan ez zen horren beharrik sentitzen. Gaur egun, berriz, ez dakigu telefono gabe bizitzen.

24. Euskal kantak ikasten zituzten `Boga-boga´ liburutik

- **Erref**: ESK-102/050
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 01:15:10. **Bukatu**: 01:17:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Taberna giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Ez dute gaur egungo euskal musika talderik ezagutzen. Garai batean euskal kantak ikasten zituzten abadearekin, maistra etorri aurretik, `Boga-boga´ liburuarekin. Gustuko zuten abestea. Maritxuk dio arrosariotik irtendakoan kantuan joaten zirela basora. Gaur egun gazteek ez dute euskal abestirik abesten. Ramonek dio beraiek tabernarik taberna kantuan ibiltzen zirela.

25. Meza, jendea elkartzeko aitzakia

- **Erref**: ESK-102/053
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 01:20:46. **Bukatu**: 01:22:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:
Garai batean auzokoak mezara joaten ziren eta denak elkartzeko aitzakia izaten zen. Gaur egun askoz gutxiago ikusten dute elkar. Gaur egun Whatsapp bidez izaten da gehiago harremana.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-19

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com